

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Equilibrio inestable.
Igor Paskual.
Pop Up Music.
Iraupena: 41'50".
10 euro.

Heldutasunaren oka gura dotorea

PASKUAL ezaguna da Loquilloren taldeko gitarra jotzailea delako, baina Trintxerpen jaiotako mutilak aurretik Babylon Chat glam taldea sortu zuen eta oraingoan proiektu propioa aurkeztu du. Loquillok ukitutako guztiak duen berezko harropuzkeria alde batera utzita, lan pertsonal eta aldi berean dotorea egin du, estiloz oso irekia eta instrumentazio aldetik arina bezain zaindua dena. Gaztelaniaz abestutako hamabi piezatan Madrilgo mobidako

pop melodia autentikoena, Nick Caven tankerako ekaitz-giroa duten pieza orkestralak, AEBetan sustraiak dituen folk-countrya, soka instrumentuak, Burningen kiratsa duen pieza canallaren bat, Irlandako oihartzunak eta pop-rocka landu ditu, besteak beste. Gainera, poesiaz, errealismoz eta sentsazio gazi-gozoz betetako hitz ederak idatzi ditu.

www.igorpaskual.com

Igor Paskual

«Rockaren mundua superlatiboa da, baina baita ostalaritzakoa, publizistena...»

“Oreka desegonkorra”. Oreka posible al da hain superlatiboa den rockaren munduan?

Oreka ez da gustukoena, nahiz eta osasungarriena den; arriskurik jasan gabe bizi zaitezke, baina ez dauka intentsitate handirik. Nahiago dut bietatik hartu eta bizipen intentso eta egonkorak izaten saiatzea, baina ia ezinezkoa da. Rockaren mundua superlatiboa da, baina baita ostalaritzakoa, publizistena... Jada rockeroek ez dugu “alde basatian” bizitzearen eskusiba.

“Ametsak betetzea nahi baduzu, trai-ziorako musikarik ez entzun”. Ez al zen musika gauza fidel bakarra?

Rockak guztia eman dit, baina gauza asko kendu ere bai, maitale jeloskor baten modukoa da, besterik egiten uzten ez dizuna. Musikak ez dauka fidelitatearekin zerikusirik, soinu soila da. Musikariok



bihurtzen dugu soinu hori sinesgarria edo hutsik dagoen zerbait.

Gitarren tratamenduak eta moldaketak asko gustatu zaizkit. Kantu biluziak badira ere, ondo jantzita daude...

Eskerrik asko. Instrumentu justuak sartu nahi nituen, gutxi baina bereizgarriak. Zailena abesti bakoitzari zer arropa jantzi erabakitzea izan da. Batzuek nahikoa zuten

bikiniarekin, beste batzuek Dior eskatu zidaten, Fred Perry batek, eta batzuetan Zara nahikoa zen!

“Edaten itxurak egiten baino hobeto pasatzen dira egunak”; esaldi polita. *Bebe-mos* poesia hutsa da, oso ona. Baina rocka ez al da itxurak egitea ere?

Itxurak egitea baino gehiago, rocka da gauzak gehien komeni zaigun alderditik erakustea. Ez da gezur osoa esatea, baina traban egiten

dizkiguten egiak ezkututzen ditugu. Edateak erantzukizunetatik aldentzea errazten dizu, bizitzatik hartutako opor batzuk, baina faktura ordaintzerakoan errealitateak dago-kizun lekuan jartzen zaitu berriro.

Zer eman dizu Loquillok eta zer zuk berari?

Loquillok esperientzia, jakintza eta burua eman dizkit; eta nik berari pasioa, arima eta bihotza. ■